

TEMPORAL DE VIENTO. DEL 1 AL 3 DE FEBRERO

Durante los días 1, 2 y 3 de febrero se registran vientos de componente sur fuertes con rachas muy fuertes y huracanadas, llegándose a medir un máximo de 189 km/h en la estación de Orduña. Al mismo tiempo, se registran temperaturas elevadas con máximas de 20–23 °C en el litoral y 18–20 °C en el interior. Estos dos aspectos, junto con la escasez de precipitaciones de los últimos meses, favorecieron la propagación de numerosos incendios en el País Vasco.

En superficie, un centro de altas presiones de 1032 hPa situado entre las Islas Baleares y el norte de África favorece los flujos de suroeste sobre el País Vasco. Este anticiclón se desplaza hacia el norte de Italia mientras que una borrasca muy profunda se acerca a las Islas Británicas, provocando entre ambos un aumento significativo de la intensidad del flujo del suroeste. A 850 hPa la temperatura ronda los 10 °C, que junto con el efecto “foehn” que se produce en superficie debido a los vientos de componente sur, provoca que las temperaturas registradas sean altas para el mes de febrero.

Tanto el día 1 como el 2, las estaciones registran rachas de viento cercanas e incluso superiores a 90 km/h. Pero es el día 3 cuando se miden las mayores intensidades, superándose con facilidad los 100 km/h en varias estaciones, como puede verse en la tabla 1.1.

Tabla 1.1. Rachas máximas de viento en algunas estaciones del 1 al 3/02/2002.

Estación	Racha máxima (km/h)
Orduña	189
Cerroja	155,2
La Garbea	148,7
Saratxo	119,2
Oiz	117,4
Punta Galea	105,8
Jaizkibel	99

HAIZE-EKAITZA. OTSAILAREN 1 ETIK 3RA

Otsailaren 1, 2 eta 3an hegoaldeko oso haize-bolada gogorrak eta are bortitzak erregistratu ziren. Orduñako estazioan 189 km/h-ko abiadurara iritsi zen. Aldi berean, oso tenperatura maximo altuak jaso ziren: kostaldean 20-23 °C ingurukoak, eta barrualdean 18-20 °C artekoak. Haize zakar eta tenperatura altu horiek, eta azken hilabeteetako prezipitazio urriek, Euskal Autonomia Erkidegoan hainbat eta hainbat sute izatea erraztu zuten.

Azalean, Balearen eta Afrika iparraldearen artean kokaturiko 1032 hPa-ko antizikloi batek hego-mendebaldeko fluxuak bideratzen ditu. Antizikloia Italia iparralderantz doa pixkanaka, eta depresio sakon bat hurbiltzen da Britainiar Irletara, bien artean hego-mendebaldeko haizea nabarmen indartzea eragiten dutelarik. 850 hPa-tan tenperatura 10 °C ingurukoa da egun horietan, eta horrek hegoaldeko haizeen ondorio den foehnarekin batera otsailerako oso tenperatura altuak ekarri zituen.

Otsailaren 1ean, nahiz 2an, estazioetan 90 km/h inguruko eta are gehiagoko haize-boladak erregistratu ziren. Baina hilaren 3an nozitu ziren haize-boladarik gogorrenak, zenbait estaziotan erraz gainditu baitzuten 100 km/h-ko abiadura, 1.1 taulan ikus daitekeen legez.

1.1 taula. Zenbait estaziotako haize-bolada maximoak, 2002-02-01etik 3ra bitartean.

Estazioa	Haize-bolada maximoa (km/h)
Orduña	189
Cerroja	155,2
La Garbea	148,7
Saratxo	119,2
Oiz	117,4
Punta Galea	105,8
Jaizkibel	99




Figura 1.1. Presión al nivel del mar y frentes. 01/02/2002 a las 12 UTC.
1.1. irudia. Presioa itsas mailan eta fronteak. 2002/02/01, 12etan UTC.




Figura 1.2. Presión al nivel del mar y frentes. 02/02/2002 a las 12 UTC.
1.2. irudia. Presioa itsas mailan eta fronteak. 2002/02/02, 12etan UTC.




Figura 1.3. Presión al nivel del mar y frentes. 03/02/2002 a las 12 UTC.
1.3. irudia. Presioa itsas mailan eta fronteak. 2002/02/03, 12etan UTC.